



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA  
**EUSKARA ZERBITZUA**

www.aranguren.es



**eusfera** **TAUPA**

Unibertso euskaldunagoa  
 gure haurrentzat



# EUSFERA, FAMILIAN EUSKARA SUSTATZEKO EKIMEN BERRIA

**INFORMAZIO GEHIAGO**

- |                                  |   |
|----------------------------------|---|
| 2. ORRIA → EUSFERA               | 8. ORRIA → EUSKARAREN ASTEA               |
| 3. ORRIA → HAURTZAROA, KIROLAK   | 9. ORRIA → EUSKARAREN ASTEA               |
| 4. ORRIA → HAURTZAROA, JARDUERAK | 10. ORRIA → EUSKARAREN EGUNA              |
| 5. ORRIA → HAURTZAROA, KANPALDIK | 11. ORRIA → BALIABIDEAK KLIK BATEANBATEAN |
| 6. ORRIA → GAZTE ETA HELDUAK     | 12. ORRIA → DENBORA-PASAK                 |
| 7. ORRIA → DENONTZAT             |   |

LG NA 136-2025

# eusfera <sup>TAUPA</sup>

Unibertso euskaldunagoa  
gure haurrentzat

**E**usfera 0 eta 12 urte bitarteko haur bat duten familiei zuzendutako ekimen berri bat da. Bere helburua “unibertso euskaldunagoa lortzea” dela aldarrikatzen dute antolatzaileek, hau da, euskarak presentzia gero eta garrantzitsuagoa izatea txikien ingurunean.



Taupa Mugimenduak antolatzen du, eta haur eta euskararekin harremana duen edozein familia parte har dezake, gurasoen euskara maila edozein dela ere. Etxe bakoitzaren egoera linguistikora moldatutako tresnak eskaintzeko helburuarekin, partaideek misio erraz eta dibertigarri batzuk jasoko dituzte, **maiatzaren 7tik 17ra** egunez egun bete ditzaten.



Erronka hauek apiriletik aurrera eskuragarri egongo dira webgunean:  
[www.eusfera.taupamugimendua.eus](http://www.eusfera.taupamugimendua.eus)



Honetaz gain, bolondresekin osatutako batzordea, Euskara Zerbitzuarekin eta Ibarreko beste elkarte batzuekin batera, Euspazio bat antolatzen ari dira, haien seme-alaben egunerokoan euskara sustatu nahi duten familien topagune gisa jokatu duen jarduera bat. Hau **maiatzaren 7aren eta 17aren** bitarteko egunen batean antolatuko da, eta udalaren webgunean iragarriko da. Adi egon..

Euspazioaren antolakuntzan parte hartu nahi baduzu esaiguzu: [euskera@aranguren.es](mailto:euskera@aranguren.es)  
Informazio gehiago webgunean: [eusfera.taupamugimendua.eus](http://eusfera.taupamugimendua.eus)

## Haurtzaroa



### IGERIKETA → en euskaraz



#### 2026ko uda:

**Adina:** 3 urte beteta jarduera hastean.

**Mailak:** Hastapena 0 eta hastapena 1.

**Izen-ematea:** Ekaineko lehen astean.

*Ordutegiei buruzko informazioa maiatzaren erdialdean argitaratuko da Udalaren webgunean.*

#### 2026/27 ikasturterako:

**Adina:** 3 urte beteta jarduera hastean.

**Mailak:** Hastapena 0, 1 eta hobekuntza hasiera.

**Izen-ematea:** Irailaren lehen astean.

*Ordutegiei buruzko informazioa abuztuaren erdialdean argitaratuko da Udalaren webgunean.*

**ADI!** Bi kasuetan, izen-ematea online (<https://inscripciones012.navarra.es/GN012/Busqueda>) edo 012 telefonoaren bidez (8:00-18:00) egingo da.

#### LEKUA:

📍 Aranguren Ibarreko Polikiroldegia

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

📞 Kirol Zerbitzua (948 24 68 50 / [deportes-kirolak@aranguren.es](mailto:deportes-kirolak@aranguren.es))

### MULTIKIROLA → euskaraz



#### 2026/27 ikasturterako:

**Adina:** 4-6 urte.

**Izen-ematea:** Irailaren lehen astean. Online (<https://inscripciones012.navarra.es/GN012/Busqueda>) edo 012 telefonoaren bidez (8:00-18:00).

#### LEKUA:

📍 Aranguren Ibarreko Kiroldegian

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

📞 Kirol Zerbitzua (948 24 68 50 / [deportes-kirolak@aranguren.es](mailto:deportes-kirolak@aranguren.es))

### ESKALADA → euskaraz

🕒 Astelehen edo asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 19:00etara

📅 6-12 urte

📍 Aranguren Ibarreko kiroldegiko pista

#### INFORMAZIO GEHIAGO:

📞 [info@arangurenmenditaldea.com](mailto:info@arangurenmenditaldea.com)



ANTOLATZAILEA:  
ARANGUREN MENDI  
TALDEA





## EUSKAL DANTZEN IKASTARO

►2026/2027 Ikasturterako

### A TALDEA: D EREDUKO LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILA

- 📍 Kultur Etxeko ludotekan (Mutiloa)
- 📅 Urriaren 5etik aurrera, astelehenetan
- 🕒 18:30-20:00

### B TALDEA: D EREDUKO LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

- 📍 Kultur Etxeko ludotekan (Mutiloa)
- 📅 Urriaren 5etik aurrera, astelehenetan
- 🕒 17:00-18:30

### C TALDEA: D EREDUKO LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK

- 📍 Osasun Etxeko beheko aldean (Mutiloa)
- 📅 Urriaren 5etik aurrera, astelehenetan
- 🕒 17:30-19:00

### D TALDEA: D EREDUKO LEHEN HEZKUNTZAKO, 5. ETA 6. MAILAK

- 📍 Osasun Etxeko beheko aldean (Mutiloa)
- 📅 Urriaren 5etik aurrera, astelehenetan
- 🕒 19:00 - 20:30



### E TALDEA: A EREDUKO LEHEN HEZKUNTZAKO 1., 2., ETA 3. MAILAK

- 📍 Osasun Etxeko beheko aldean (Mutiloa)
- 📅 Urriaren 9tik aurrera, ostiraletan
- 🕒 17:30 - 19:00

#### ZEN EMATEAK:

##### Aurreizenematea: MAIATZAREN 22tik EKAINAREN 3ra.

- ➔ Deitu 012 telefonora (8:00-18:00 orduategian). Deiares kostua: 0,34€ edo 948 012 012 (tarifa laua dutenentzat doakoa).
- ➔ Prezioa: 10 € erroldatutakoak / 30 € erroldatu gabeek (urte osorako).
- ➔ Taldeak martxan jartzeko: Gutxienez 8 eta 12 gehienez (edukiera mugatua).

##### PLAZEN ESLEIPENA:

Ordenan esleituko dira plazak, lehenik *aurten ikastaroan parte hartu duten haurrek dute lehentasuna*, bigarrenik *erroldatuen artean* eta azkenik aurrez izena emanda duten *gainerako pertsonak*. Argibideak: Euskara Zerbitzuan 948 24 49 46 / euskera@aranguren.es

## Txikien Euskarazko Irakurle Kluba ►2026/27 ikasturterako



**6 eta 8 urte bitartean (biak barne)** beteko dituzten haurrentzat eta haiekin parte hartuko duten **heldu euskaldun** batentzat. Pertsona heldua, senidea izan daiteke edota familiaren laguna. Heldu bakoitzak gehienez ere 3 haurrekin parte hartu ahal izango du. Galtzagorri Elkarteko dinamizatzaile batek gidatuko ditu saioak. Saioren formatua nahiko berritzailea da, ez dira helduentzako irakurketa-kluben estilokoak, saioak oso dibertigarriak, txikienek irakurzaletasuna garatzeko eta motibatze bereziak izango dira. Saio bakoitzean liburu ezberdinak erabiliko dira, ipuin-kontaketa txikiak egingo dira, liburu-zatiak irakurriko dira eta proposatutako irakurketei buruzko iritzia eta gustuak partekatuko dira besteak beste.

🕒 17:00 a 18:30. El segundo jueves de cada mes. Hay que participar en todas las sesiones.

📍 Mutiloako Liburutegia

📅 EKAINAREN 8tik 12ra. Deitu 012 telefonora (8:00-18:00 orduategian). Deiares kostua: 0,34€ edo 948 012 012 (tarifa laua dutenentzat doakoa)

€ 10 € erroldatuek / 30 € erroldatu gabeek (urte osorako)

**PLAZEN ESLEIPENA:** Ordenan esleituko dira plazak, lehenik aurten parte hartu duten pertsonak dute lehentasuna, bigarrenik erroldatuen artean eta azkenik aurrez izena emanda duten gainerako pertsonen artean.

#### ARGIBIDEAK:

- 📞 Servicio de Euskera 948 15 01 93 euskera@aranguren.es



## Lino Otano musika eskolan izen-ematea ►2026/2027 ikasturtean



#### IZEN EMATEA:

- 📅 Maiatzaren 4tik 25era Musika Eskolan

#### ARGIBIDEAK:

- 📍 Lino Otano Musika Eskolan (948 24 16 23 / escuelamusica@aranguren.es)

Euskarazko hizkuntza garatzeko, garrantzitsua da haurrek eskolatik kanpo ere euskarazko harremanak izateko aukera izatea, baita euskarazko beste erregistro batzuk eskuratzeko aukera izatea ere. Horregatik, zuen seme-alabak Aranguren Ibarreko "Lino Otano" Musika Eskolako euskarazko lerroan inskribatzera animatzen zaituztegu.

Aurten euskarazko eskaintza musika hastapenentarako eta musika-hizkuntzaren 1., 2. eta 3. mailentarako izango da. Hau da, haur hezkuntzako 1. mailatik eta lehen hezkuntzako 4. mailara bitarteko ikasleek, 2018 eta 2023 bitartean jaiotako, euskaraz egin ahal izango dituzte haien musika-ikasketak.

**Informazio guztia Aranguren Ibarreko Udalaren webgunean argitaratuko da:**  
<https://www.aranguren.es/escuela-de-musica-lino-otano/>

## Ipuin kontalaria euskaraz



*D-letras literatur-festivalaren egitarauaren barne. Aldi berean haurren kategoriako sari banaketa izango da*

- 📅 Maiatzak 16, larunbata, 17:00etan Eguzki plazan Doan

## Hiri Udalekuak ►2014 eta 2022 urte bitartean jaiotako haurrentzat (biak barne)



📍 Nagusiki San Pedro I.P.-an

📅 Ekainaren 22tik uztailearen 3ra eta uztailearen 20tik abuztuaren 28ra

► Sartzerakoan, ordu malgutasuna: 7:45-9:00h.

► Ateratzerakoan, ordu malgutasuna:

- Jantoki zerbitzuarekin: 15:15ak arte
- Jantoki zerbitzurik gabe: 13:30-14:00

€ **Precio:**

- 1 haur: 50 euro asteko
- 2 haur: 87,50 euro asteko
- 3 haur: 115,62 euro asteko

► Jantoki zerbitzua: Udaletxeko webgunean argitaratuko da prezioa. Izen-emateak: 012aren bidez. Erroldatutakoak maiatzaren 14, 15 eta 18an. Erroldatu gabekoak, plazak geratzen baldin badira.

#### ARGIBIDEAK:

- 📞 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 948 151 382 / rgarralda@aranguren.es



## UDALEKUAK

**Udaleku itxi askok dagoeneko ireki dute izena emateko epea, beste batzuk laster egingen dute. Lotura honetan aurtengo eskaintzari buruzko informazioa topatuko duzu, aldian-aldian eguneratua:**

<https://eranafarroa.eus/udalekuak>

► Horrez gain, Udalak dirulaguntzak ematen dizkie familiei seme-alabak (Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak) euskarazko kanpaleketan inskribatzeagatik sortutako gastua ordaintzeko.

► **Laguntza ekonomikoa jasotzeko epea irailean zehar egonen da irekita.**

► Oinarriak hemen argitaratu dira: <https://www.aranguren.es/eu/aisialdirako-eskaintzak>  
Argibideak: Euskara Zerbitzuan 948 24 49 46 / euskera@aranguren.es



## EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK



**2025/26 ikasturtean zehar euskara ikasi eta hauetako baldintzaren bat, edo biak, betetzen dituzten pertsonentzat:**

- ▶ Ibarrean errolaturik egotea.
- ▶ Ibarrean jendaurrean lanean aritzea.
  - Udaleko zerbitzuren bat kudeatzen duen enpresa bateko langile gisa.
  - Hiriguneko saltokiren batean.

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:**

Urriaren 3ra arte, Udaleko Erregistro Orokorrean edo Egoitza Elektronikoa.

**ARGIBIDEAK:**

[www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/euskara-zerbitzua](http://www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/euskara-zerbitzua) eta Udaletxeko Euskara Zerbitzuan.

Beharrezko dokumentazio guztia topatu dezakezue.

## Ibarrean Euskara ikasteko ikastaroak ▶ 2026/27 ikasturtean

Badira urte batzuk Euskara Zerbitzua AEKrekin elkarlanean ari dela Ibarrean euskara eskolak eskaintzeko. Hauek dira datorren urterako aurreikusitako taldeak:

MAILA	ORDUTEGIA	LEKUA
A1.1	17:00-19:30 Astearte eta ostegunak	San Pedro IP
A1.2	17:00-19:30 Astelehen eta asteazkenak	Irulegi IP
A2	17:00-19:30 Astearte eta ostegunak	San Pedro IP

▶ **Aurretiko izen-ematea:** Online, maiatza eta ekaina bitartean, Udaleko webgunean iragarriko da.

**ARGIBIDEAK:**

① [irunezar@aek.eus](mailto:irunezar@aek.eus)



## Mintzakide



**Mintzakide proiektua, Taupa Muigimenduak bultzatuta, hainbat urte daramatza gure ibarrean. Euskara praktikatu nahi duten pertsonak euskara menperatzen duten hiztunekin harremanetan jartzeatu helburu, elkarrizketa naturalerako espazioak sortuz. Partaide bakoitza giro informal batean euskaraz hitz egiteko elkartzen talde txiki baten kide bihurtzen da.**

Izen-ematea doako da, baina gutxieneko euskara maila beharrezkoa da.

- ▶ **Bi talde ditugu ibarrean momentu honetan:**
- ▶ Asteazkenetan 17:00etan la Venus Tabernan. Talde berria.
- ▶ Ostiraletan 11:00etan Mutilvera Tabernan.

**ARGIBIDEAK:**

① [mintzakide@taupamugimendua.eus](mailto:mintzakide@taupamugimendua.eus)



## 31192 Gaztegunean

**EUSKARAREN LAPIKOA** Euskarazko jarduerak egiteko talde berria, Honakoentzat:

- ▶ Euskaraz ikasi dutenak.
- ▶ Hizkuntzarekin harremana dutenak.
- ▶ Modu ludiko eta dibertigarrian praktikatu nahi dutenak.

- **31192 Podcasta:** Ekimen berri bat, ibarreko gaztediaren ahotsa entzun dadin, baita euskaraz! Parte hartu nahi baldin baduzu, haiekin harremanetan jartzerik besterik ez duzu.
- **31192 Lehiaketatxoa:** Asteartero 20:00etan instagramen, galdera eta sariak zure zain.
- Laster... **udako jarduerak euskaraz**, xehetasun gehiago hurrengo gazteria buletinean.

**ARGIBIDEAK:**

① **Gaztegunean,**  
948 237 558 zenbakira dei eginez edo 689 80 87 32 whatsappean

## Helduen irakurketa kluba



Ibarreko irakurketa kluba hilabeteko azken ostegunean biltzen da, 19:00etan, Kultur Etxean.

Hurrengo irakurketa eta saioen inguruko informazio gehiago jaso nahi baldin baduzu idatzi mezu bat [irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com) helbidera, zure izen-abizenak eta mugikor zenbakia adieraziz.

Antolatzailea:  
**Irulegi Euskara Taldea**



## Laster...

**Helduentzako Euskal Dantza Ikastaroa.**

2 saio ekainean.  
Mutiloa plazan. Doan.

Antolatzailea:  
**Irulegi Euskara Taldea**

**ARGIBIDEAK:**

① [irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com)

## Denontzat



## LASTER... Euskal Jai

**Aurten, Mutiloako jaietan, euskara protagonista bihurtuko da larunbatean zehar. Izan ere hainbat jarduera antolatuko dira ibarreko hizkuntzan.**

- Ekainak 20.
- Mutiloa.

**ARGIBIDEAK:**

① [kultura.cultura@ranguren.es](http://kultura.cultura@ranguren.es) edo [Irulegi Euskara Taldea irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com)

# ≡EUSKARAREN ASTEA≡



beste kolektibo edo entitate eta norbanakoei ere gonbidapen zabala egiten zaie, bai hauetaz gozatzeko, baita antolakuntzan egoteko ere. Parte hartzeko interesa baduzu jarri harremanetan Euskara Zerbitzuarekin

**A**urten Euskararen Astea maiatzaren 5tik 9ra bitartean izango da, eta haur, gazte eta adin guztietarako jarduerak izango dira euskaraz. Euskararen Eguna Aranguren herrian izanen da, maiatzaren 9an. Berriro ere ibarreko euskaldun eta euskaltzaleekin elkartzeko eta euskaraz aritzeko aukera izango dugu aste betez. Jarraian egitaraua ikus daiteke. Bertako ekintzak Irulegi Euskara Elkarteak eta Aranguren Ibarreko Udalaren elkarlanaz garatuko dira, baina Ibarreko

## “Kaitin in the Night” Bakarrizketa euskaraz



Euskarazko bakarrizketa dibertigarri honetan, kazetari batek bere lanbideko bizipen eroak, klimateriora igaro den ama perimenopausiko gisa izandako esperientziak, eta zahartzaro aktiboa muturrera eramanda zahartzaro hiperaktiboan erori den amatuaren zaintzailea izatearen ingurukoak kontatuko dizkigu.

- Maiatzak 5, asteartea
- 🕒 19:00, iraupena 1h
- 📍 Kultur Etxeko entzunaretoa
- ▶ Asistentzia askea lekua agortu arte Gazte eta Helduentzat

## Porrotx eta Marimotots pailazoak “Zerua Lapurtu dute!”



“Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore arduratuta daude izarririk ikusten ez dutelako. Zer gertatu da zeruarekin? Lapurtu egin al digute?”

Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila... unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratzuz barrura begiratzeko!

- Maiatzak 6, asteazkena
- 🕒 18:00, iraupena: 70 min
- 📍 Aranguren Ibarreko Kiroldegia
- ▶ Sarreraren salmenta apirilaren 28an irekiko da publiko orokorarentzat. Sarrerak Kultur Etxean eros ditzakezu, astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 eta 17:00-21:00 bitartean, aurten ez da online salmentarik egongo.

Elkarlanean:  
**Irulegi Euskara Taldea**

## GO!AZEN 12.0



Maitanek ideia zoragarri bat garatu du aurten: Basakabi “bigarren aukeren” udalekoa bilakatu du. Kontua da Garaziri ez diola bere planen berri eman eta Basakabi arazoak dituzten gaztez bete da. Hemendik aurrera udara zaila biziko dute Garazik eta Maitanek Basakabin. Etorri diren gazte berriek iskanbilak sortuko dituzte eta, gainera, Kuxkuxero izeneko pertsona batek, ikasle guztien inguruko informazioa zabalduko du sare sozialetan. Maitasuna, anaien arteko gorrotoa, mendekua eta, jakina, abesti berri ugari!

- Maiatzak 7, osteguna
- 🕒 18:00etan
- 📍 Kultur Etxean

Sarreraren salmenta apirilaren 28, 29 eta 30ean erroldatutako pertsonentzat, soberan geratzen badira publiko orokorarentzat irekiko da salmenta. Sarrerak Kultur Etxean eros ditzakezu, astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 eta 17:00-21:00 bitartean, edo udalaren web orrian <https://www.aranguren.es/servicios/cultura>

**Oharra:** Ikuskizun hau gaztetxoentzat da (7 urtetik gorakoentzat). Ikuskizunak eragindako ikusmin handia dela eta, eta ahalik eta gazte gehienek huraxe gozatzeko aukera izan dezaten, eskatzen dizuegu ahalik eta heldu gutxien joatea gazteekin, beharrezkoak direnak baino ez, kontutan izan adin gabekoak direnez behintzat heldua den pertsona arduradun bat egon beharko dela. Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

## Bizi martxa

### Eta jarraian... globoflexia tailerra eta pintxo-pote



- Maiatzak 8, ostirala
- 🕒 **Hasiera: 17:30tan Eguzki plazan.**  
**Helmuga: 18:30tan Mutiloa plazan**
- ▶ Enparatzara iritsi ostean haurrak globoflexia tailerrarekin dibertitu ahaliko dira helduek pintxo-potea gozaten duten bitartean.

#### ARGIBIDEAK:

- 📍 **Irulegi Euskara Taldea** ([irulegieuskarataldea@gmail.com](mailto:irulegieuskarataldea@gmail.com))

Antolatzaile:  
**Irulegi Euskara Taldea**



## Eta egun berean...

### Hitzaldia: “Gazteria eta Euskal Eszena Musikala”

Nerea Arrasate (Naxker) eta Manex Egañarekin (Brigade Loco).

- Maiatzak 8, ostirala
- 🕒 19:00tan
- 📍 31192 Gaztegunean
- ▶ Sarrera askea lekua agortu arte

Antolatzaile:  
**Irulegi Euskara Taldea**

# ≡EUSKARAREN EGUNA≡

## ARANGUREN



**A**urten ibarreko herrietako abizilagunek Arangureneraino joan eta etortzeko doako taxi zerbitzua izango dute Euskararen Eguna dela eta. Zerbitzu hau erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da izena ematea maiatzaren 5a baino lehen, egun hori barne, 012 zenbakiaren bitartez.



### MAIATZAREN 9KO EGITARAUA

Jaia Arangurengo frontoian eta honen ondoan dagoen plazan egingo da. Lehen ordutik musika, txapa tailerra eta aurpegi margoketa egongo dira

<b>E10:00</b>	<b>Eskupilota partida</b>
<b>11:00-12:00</b>	<b>Herri Kirolak txikientzat</b>
<b>12:00-13:00</b>	<b>Herri Kirolak gazte eta helduekin</b>
<b>12:30</b>	<b>Aranguren Ibarreko Erraldoi eta Gaitariak + Pintxo-pote</b>
<b>13:00</b>	<b>Ibarreko Dantzaris Txikien emanaldia</b>
<b>13:45</b>	<b>Trikipandero</b>
<b>14:00</b>	<b>Txikien Bazkaria. 15€ catering, 2,5€ autogestionatua</b>
<b>14:30</b>	<b>Helduen Bazkaria. 27€ catering, 2,5€ autogestionatua</b>
<b>16:00-18:00</b>	<b>Trikitixekin alaitutako bazkalostea. 3-12 urte bitarteko haurrentzako jolasak</b>
	<i>Izen-ematea 012an maiatzaren 5 arte</i>
<b>18:00-20:00</b>	<b>Xaukena Electrotxaranga</b>
<b>21:00</b>	<b>Bokatak, 6€*</b>

Antolatzaile:  
**Irulegi Euskara Taldea**

\*EZINBESTEKOA IZANGO DA BAZKARIRAKO ETA BOKATENTZAKO TXARTELAK AURKEZTEA. Txartelak salgai egongo dira Kultur Etxean, astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 eta 17:00-21:00 bitartean irekita, apirilaren 23tik maiatzaren 5era, ESKUDIRUZ ORDAINDU.

## BALIABIDEAK... KLIK BATEAN!



### era.eus

**era.eus** webgune honen helburua **euskaraz ikasten duten haurren gurasoei** beren 0 eta 12 urte bitarteko seme-alaben ikas-prozesua osatzeko **laguntza eta baliabideak eskaintzea da**. Haurrek ikastetxeetan dagokien adinerako ezagutzak eta gaitasunak jasotzen eta garatzen dituzte, baina euskarak gizartean duen presentzia desorekatua kontuan hartuta, ezagutza eta gaitasun horiek **eskolaz kanpo ere indartzea** egokia da, esaterako, etxean, kultur jardueretan edo eskolaz kanpoko jardueretan.



### elaide.eus



Elaide.eus plataforma digitalak laguntza eta baliabideak eskaini nahi dizkie euskara ikasten duten edo euskararen mundura hurbildu nahi duten helduei

## EUSKALDUNEN FITXATEGIA



**2010etik aurrera jaiotako (15 urte baino gutxiagoko) seme-alabaren bat baduzu eta euskaraz edo euskarari buruz antolatutako jardueren berri jaso nahi baduzu, deitu edo idatzi Euskara Zerbitzura eta fitxategiko fitxa bete.**

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren euskarazko edo euskarari buruzko jarduerak modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako jardueren berri jaso nahi baduzu, jar zaitez udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan:

- Fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure daturen bat (e-posta, telefonoa...) aldatu baduzu
- 15 urte baino gutxiagoko seme-alabaren bat baldin baduzu (2011etik aurrera jaiotakoa).

### Euskara Zerbitzua

Udalaren helburua Ibarreko talde eta norbanakoekin elkar-lanean aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeko proposamenik baldin baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan.

- Aranguren Ibarreko Udala, 1. pisua. Mutiloa pl/ z/g. Mutiloa**
- Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00.**
- 948 15 01 93**
- euskera@aranguren.es**

## Autodefinitua

\* MAIATZAREN 7TIK 17RA GAUZATUKO DEN EKIMENA

LEIAL FILOSOFIARI DAGOKIONA	ERASO LORIAZ BETE	POZ HANDIAK SELENOIAREN IKURRA	HAUR TXIKI HARRO	ASKE KINA
LEHEN MUSIKA NOTA HAREN	EZINEAN AGINDUPE	KEINUA SUARI DARIONA		
SIMAU ASKO EMATEN DUENA ZATIA, ATALA	NAFARROAKO IBAIA	GATAZKA, ISTILU AITONA	KILOBYTE DAGO	
UMEMOKO OHIL	HUTS, AKATS JAURTIKETA	MAGNETITA OSTEGUN	DU, HAI EI MENPEKO, ZERBITZARI	ERNE
NEKEA ADIERAZTEKO INTERJEKZIOA SALNEURRIA	UKATZAILA MENDEBAL- DEAN, ZEN	XAKEKO FITXA GUZTIZ TXIKIA DENA	..., I, O, U INDUSTRI PRODUKZIOA- REN INDIZEA	HIKUNTZA, MINTZAIRA
MERKATARI LIZARRAKO MERINDA DEKO HERRIA	EZEZTAPEN UGARITASUN ATZIKIA	KETA		
	OINAREN AZPIA		OMEN	

## Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							
10							



### EZKER-ESKUIN

1. Iheskorra. | 1002, erromatar zenbakiz. 2. Pausaldi. | Argi. 3. Ur korrante naturala. | Abantzu, kasik. 4. Erliziozko kanta, eliz kanta. 5. Balio handiko gauza. 6. Xalotasunez. 7. Jaurtigai baten helmen. 8. Moko kolpea. 9. Ihardun. | Tik-..., erlojua. 10. Ahirutan. | Europako moneta.

### GOITIK BEHERA


1. Kanpora. | Lurraren azala osatzen duen gai ez organikoa. 2. Zabal. | Herri jokoa. 3. Taxo-areko haritzen birlandaketa. 4. Zain egon. 5. Txorien kartzelak. 6. Mililitro. | Kromoztatuta. 7. Kasik, abantzu. | Kebidetako zikinkeria. 8. Garoa, iratzea. | Dina dena, egoki.

## Hitz gurutzatuak

Ematen dizkizuegun zenbakiez baliatuz, kokatu gauza hauen izen bakoitza bere tokian.

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.

## Labirintoa



## Ebazpenak

G U A  
 S A R M A I R U A  
 O D O A R M A I R U A  
 E E S N E L E T E L E B I S T A  
 E G U T E L I A Z A K A R R O N T Z I A  
 S E M A F O R O A  
 T E L E B I S T A  
 A Z A K A R R O N T Z I A  
 L A

L  
 N K O  
 B S O F I K O  
 J F I L O S O F I K O  
 F I L O S O F I K O  
 B E R E K E I N A  
 E L I S K A I R K B  
 M U K I T S U I M A N  
 P I E Z A O K E R D I E  
 S E M A F O R O A  
 B A S A T I P E O I A E  
 M U K I T S U I M A N  
 U F A R N E G A R I R  
 P R E Z I O A U K A P E N  
 T R A T A N T E B I L A  
 V I A N A O I N P I E I